

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5163

AGINDUA, 2025eko azaroaren 20koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordea.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko modua, 7. artikuluan jasotzen da zer zuzendaritzak parte hartu behar duen Balorazio-organoan.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko urriaren 17ko Agindua, zeinaren bidez 2025. urteko dirulaguntza-deialdia egiten baita Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako, 2025eko urriaren 31 argitaratu zen EHAAn.

Agindu horren 7. artikuluan, Balorazio-batzordea izendatu zen, eta honako osaera honekin:

a) Itziar Redondo Dominguez, kultura sustatu, bultzatu eta hedatzeko eskuduntza duen zuzendaritzako teknikaria, izango da balorazio-batzordeko presidentea.

b) Aitor Mate Martinez, Fundazioen eta Elkarten Erregistroaren arloko eskumena duen zuzendaritzako teknikaria, izango da balorazio-batzordeko presidenteordea; huts egiten badu, Borja Domingo Fernandez arituko da haren ordeiz.

c) Ana Altuna Riaño izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) teknikaria, eta balorazio-batzordeko idazkaria (hitzarekin eta botoarekin); huts egiten badu, Lorea Manterola Mancisidor arituko da haren ordeiz.

d) Elene Etxezarreta Etxeberria izango da hizkuntza-politikaren arloan diharduen teknikaria; huts egiten badu, Larraitz Murgiondo Artano arituko da haren ordeiz.

Izendatutako kide batzuk dagoeneko ez dira Zuzendaritza horietako langileak.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio-batzordeko kideak izendatzea, eta batzorde horren osaera argitaratzea.

a) Itziar Redondo Dominguez, kultura sustatu, bultzatu eta hedatzeko eskuduntza duen zuzendaritzako teknikaria, izango da balorazio-batzordeko presidentea.

b) Aitor Mate Martinez, Fundazioen eta Elkarten Erregistroaren arloko eskumena duen zuzendaritzako teknikaria, izango da balorazio-batzordeko presidenteordea; huts egiten badu, Beatriz Garcia Garcia arituko da haren ordeiz.

c) Nerea Espeja Ballesterio izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) teknikaria, eta balorazio-batzordeko idazkaria (hitzarekin eta botoarekin); huts egiten badu, Miren Aizpuru Bilbao arituko da haren ordeiz.

d) Elene Etxezarreta Etxeberria izango da hizkuntza-politikaren arloan diharduen teknikaria; huts egiten badu, Larraitx Murgiondo Artano arituko da haren ordez..

Bigarrena.– Agintzea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila, jende guztiak izan dezan beronen berri.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 20a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.